

Literatura

Poesia kaiera
Eugenio Montale
Itzulpena: Anjel Lertxundi

Susa, 2015



Itsasoak eta beste

ESKERRIK ASKO, esan beharko zaio Anjel Lertxundiri, Montaleren poesia sakon bezain zaila, jolastia bezain iluna, klasifikatzeko hain mugakoa, gozatze-ko hain naturala, euskarara ekartzearren Susaren Munduko Poesia Kaiarak sailean. Kaiaren ardura darioan Beñat Sarasolak ere ez daki zelan azaldu, baina ederto azaltzen du liburuko hitzaurrean Montalek eragiten duena: “Izugarrizko ekoizpen poetikoa ez izanagatik, estilo eta molde aski ezberdineko poemak idatzi zituen Montalek. Horietako zenbaitetan, adibidez, poesiari berari eta arteari buruz hausnartu zuen, ukitu umoretsua gehituta inoiz (irakur *Poeta bat* eta *Errimak*). Egiatzki, ez da irri egiteko poesia mota bat Montalereana, ezpada XX. mende lazgarriaren testigu maiz aski iluna. Bi mundu gerrak eta faxismoa gertu-gertutik bizi izanda, nekez egin zezakeen ospakizun-poesiarik, eta giza hondamendia ere ekarri zuen *Gure garaiaren gorazarre* eta *Sumina* bezalako aletara. Mendea minutua den hondo bat irudikatu zuen *Gatibuaren ametsan*, eta akaso handik etorri zen mendea eta bigarrena gurtzatzen diren leku famatu hori”.

Eugenio Montale (Genova 1896-Milan 1981) pesimismoaren eta giza ezinegonaren poeta gisa katalogatu dute. Baina Eugenio Montale hori baino gehiago dela frogatzeko itzuli ditu Lertxundik hain

askotariko poemak hain paleta koloretsua erabiliz. Poesia bitala da irakurleak hemen aurkituko duena, ez tristea. Eta uneka badirudi kaiarak kontra egiten diola kritika kanonikoari eta Montale bizizalea barruntatzen dela bi mundu gerren artean: “Antzinako, horditurik nauka / zure ahoetatik irteten den ahotsak, / zabaltzen direnean kanpai berdeen gisa, / eta atzerako indarra hartu eta gero, desegin. / Auzo zenuen nire uda / urrunen etxea, badakizu, / eguzkiak kiskali egiten duen lur hartan / eta eltxoek airea lainotzen. / Orduan bezala harritzen naiz zure aurrean, / itsaso”.

Nobel sariak poesia sano fisikoarekin egiten du metafisika: usaindu, entzun, sufritu egiten dira bere hitzak. Ez da hermetikoa: plazera da bere leku pribatuak, bere mamu pertsonalak ezagutzea, bere hitz joko ulertezinak dastatzea. Ez da zaila, baizik eta atsegingarriki konplikatua. Ez da goibela, baizik eta faxismoa bezain arrea. Montale da poeta bat sintaxia bortxatzen duena, hizkuntza zuririk ez darabilena, bihotzarekin idazten duena filtrorik apenas ezarri gabe bere etorriari eta bere tristeziari eta bere pozari. Montale da zure buruari, irakurle, opatu behar diozun esperientzia estetikoa. ■

Igor Estankona

tradebi
EB Traducciones Itzulpenak, S. L.
www.tradebi.com